

## **Itzarri, Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundea**

2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren  
kontu-ikuskaritzaren txostena, urteko kontuak eta  
2008ko kudeaketaren txostena

*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea.  
Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

## URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Ikuskatu ditugu Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeko urteko kontuak. Erakunde horretako Gobernu-Batzordearen ardura da kontu horiek osatzea, eta, bertan, 2008ko abenduaren 31ra arteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta egun horretara arteko urtealdiko txostena daude bildurik. Gure ardura urteko kontu horiei buruzko iritzia azaltzea da, kontuak orokorrean harturik, eta, horretarako, ikuskaritza-lanean oro har onarturiko arauak erabili ditugu, hau da, aukerako proba batzuk eginez, urteko kontuak frogatzen dituen nabaritasuna aztertzea, eta beste alde batetik, kontu horien aurkezpena, erabilitako ikuskaritza-printzipioak eta eginiko estimazioak balioestea izan da gure beharra.

Merkataritza-legediarekin bat etorritik, 2008ko ekitaldiko egoera balantzearen, galeren eta irabazien kontuaren eta finantzazio taularen ondoan, aurreko ekitaldiko, hau da, 2007eko datuak adierazi ditu Gobernu Batzordeak, dagozkion konparazioak egiteko. Gure iritzia 2008 ekitaldiko kontuetara mugatzen da. 2008ko martxoaren 26an, 2007 ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostena egin genuen, eta, bertan, kontu horien aldeko iritzia eman genuen.

Gure iritziz, arlo esanguratsu guztietan, erantsirik doazen 2008ko urtealdiko kontuetan zuzen adierazita daude bai Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundearen ondarearen eta finantza-egoeraren 2008ko abenduaren 31ko irudia, bai eta egun horretara arteko urtealdian eginiko operazioen emaitzen eta lorturiko eta aplikaturiko baliabideen irudia ere, eta datu horiek denak interpretatzeko eta ondo ulertzeko behar bezain beste informazio ere badakarte, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan aplikatu beharreko kontularitzako printzipio eta arauen haritik (txosten erantsiaren 4. puntua), eta horiek bat datoz aurreko ekitaldian erabilitako printzipio eta arauekin.

Txostenarekin batera aurkezten den 2008ko kudeaketa txostenak, enpresaren egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz gobernu batzordearen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontuetako bat. Kudeaketa txosten horretan jasota dagoen kontularitzako informazioa eta 2008. urteko kontuetan jasota dagoen informazioa bat datozela egiaztatu dugu. Ikuskatzaileak garen aldetik, gure lana kudeaketa txostena neurri horretan egiaztatzea da, besterik ez, eta erakundeko kontularitzako erregistroetatik lortutakoaz bestelako informaziorik ez dugu guk aztertzen".

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.  
(Jatorrizkoa espainieraz, M<sup>o</sup> Victoria Mendia Lasak sinatua)

2009ko martxoaren 24a  
Bazkide kontu-ikuskatzailea

**ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEA**

**2008ko ETA 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEAK**  
(Mila eurotan adieraziak)

	2008	2007		2008	2007
<b>AKTIBOA</b>					
<b>IBILGETUA</b>					
Hastapen-gastuak	685	544			
Immaterialeen ibilgetzeak (5. oharra)	3	5			
Erabilitze-eskubideak	605	448			
Aplikazio informatikoak	476	476			
Uneko ibilgetua	196	196			
Metatutako amortizazioa	167	-			
	(234)	(224)			
<b>Materialeen ibilgetzeak (6. oharra)</b>	<b>77</b>	<b>91</b>			
Garrario-elementuak	15	15			
Altzarnak eta instalazioak	110	110			
Ekipamendu informatikoak eta datuen prozesamendua	66	66			
Metatutako amortizazioa (kertzeko)	(114)	(100)			
<b>FINANTZA-INGURTSIOAK (7. oharra)</b>	<b>168.736</b>	<b>112.632</b>			
Akziorak eta beste partaidetzak	38.953	29.395			
Partaidetzen inguruan egiteko dauden ordainketak	(2.505)	(4.135)			
Errenta finkeko tituluak	149.033	89.833			
Hornidurak (kertzeko)	(16.745)	(2.461)			
<b>KREDITUAK (8. oharra)</b>	<b>1.101</b>	<b>111</b>			
Hainbat zordun	688	-			
Zerga- eta gizarte-credituak nahiz bestelako kredituak	277	111			
Balio-saimentengailko zordunak	136	-			
<b>ALDIKATZEAGATIKO DOIKUNTZAK</b>	<b>4.222</b>	<b>2.283</b>			
<b>ESKUDIRUA (9. oharra)</b>	<b>5.062</b>	<b>3.699</b>			
Kreditu-banku eta -erakundeak	4.618	3.699			
Finantza-aktibo likidoak	444	-			
	<b>179.806</b>	<b>119.269</b>			
<b>PASIBOA</b>					
<b>ONDARE SOZIALA (10. oharra)</b>					
Mutua-funtisa	30	30			
Ekitaldiko soberakina (defizita)	(7.560)	3.164			
<b>HORNIDURA TEKNIKOAK (11. oharra)</b>	<b>186.570</b>	<b>115.470</b>			
Prestazioetarako hornidura teknikoak	186.570	115.470			
<b>HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO DIRU-SARREERAK</b>	<b>438</b>	<b>447</b>			
Jasotako diru-laguntzak (12. oharra)	438	447			
<b>ZORRAK</b>	<b>328</b>	<b>158</b>			
Zerga- eta gizarte-zorrak nahiz bestelako zorrak	19	19			
Hainbat hartzeokidun (13. oharra)	309	139			
	<b>179.806</b>	<b>119.269</b>			

**ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

**2008ko ETA 2007ko ABENDUAREN 31n BUKATUTAKO EKITALDIEI DAGOZKIEN GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK**  
**(Mila eurotan adieraziak)**

<u>GASTUAK</u>	<u>2008</u>	<u>2007</u>	<u>DIRU-SARRERAK</u>	<u>2008</u>	<u>2007</u>
<b>Ekitaldian sortutako prestazioak</b>			<b>Ekitaldiko kuotak</b>		
Prestazioak eta erreskaltzak	1.192	769	Bazkideen kuotak	69.563	49.946
Institudaketak beste BGAE-etara	3	1	Institudaketak beste BGAE-etatik	568	46
	1.195	770		69.131	49.992
<b>Hornidura teknikoak ekitaldia ixtean</b>			<b>Aurreko ekitaldiko hornidura teknikoak</b>		
Prestazioelarako hornidura teknikoak	186.570	115.470	Prestazioelarako hornidura teknikoak	115.470	63.664
			Aurreko ekitaldiko emaitzaren hornidura teknikoetarako aplikatu beharrekoak	3.164	2.594
				118.634	66.248
<b>Administrazio-gastuak</b>			<b>Inbertsioen diru-sarrerak</b>		
Soldata eta lantsariak	280	280	Finantza-inbertsioen diru-sarrerak	7.240	4.080
Gizarte-kargak	38	59	Finantza-operazioengatikoa	467	1.843
BGAE-rako ekarpenak	7	4	Finantza-gerokoan operazioengatikoa	7.991	657
Ekitaldiko zuzkidurak amortizazioelarako	26	112	Finantzeiako hainbat diru-sarrera	90	-
Administrazioko beste gastu batzuk	331	314		15.778	6.580
	682	749			
<b>Inbertsioen gastuak</b>			<b>Ez ohiko emaitza positiboak</b>		
Ekitaldiko zuzkidura horniduretarako	14.294	2.105	Ekitaldiko emaitzara transferitutako diru-laguntzak	9	140
Finantza-operazioengatikoa galera	525	55		9	140
Finantza-gerokoan operazioengatikoa galera	7.866	601			
Zonbait finantza-gastu	-	45			
	22.665	2.807			
<b>Ekitaldiko superabita</b>			<b>Ekitaldiko defizita</b>		
	-	3.164		7.560	-
<b>ZORRA GUZTIRA</b>	<b>211.112</b>	<b>122.960</b>	<b>HARTZEKO GUZTIRA</b>	<b>211.112</b>	<b>122.960</b>

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2008ko ABENDUAREN 31n BUKATU ZEN EKITALDIAREN URTEKO KONTUEN  
MEMORIA  
(Mila eurotan adierazia)

### 1. Izaera eta gizarte-helburua

Itzari, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea (aurrerantzean, Entitatea), 2004ko uztailaren 27an eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak hala eskatuta. Itzarriren eratzea, erakundearen estatutuak, prestazioen erregelamendua eta txosten ekonomikoa Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak onetsi zituen 2004ko uztailaren 30ean. Erakundeak 260-A zenbakia du Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Euskadiko Erregistro Ofizialean.

Erakundearen helbide soziala Vitoria-Gasteizen dago, San Antonio kaleko 2.ean (5. oharra).

Erakundeak dekretu hauetan ezarritako preskripzioak bete behar ditu; 25/1983 Legea, urriaren 25ekoa, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei buruzkoa, 1984/87 Dekretua, otsailaren 20koa, aipatutako Legearen Erregelamendua onetsi zuena, eta 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, Ogasun eta Herri Administrazio nahiz Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailena.

2007ko ekainaren 15an sartu zen indarrean 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen jardura jakin batzuk arautu zituena, eta 87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa aldatu zuena (16. oharra).

Estatutuen arabera, Erakundearen helburu soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren zerbitzura dauden langileek egiaztaturiko prestazio publikoak osatzea erretiroaren, ezintasun iraunkorraren, heriotzaren edo iraupen luzeko langabeziaren kasuetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoa da Erakundearen bere jardura-esparrua.

Bazkide babesle izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren parte diren erakundeak, betiere, atxikimendu-hitzarmena sinatu, eta Erakundeko Gobernu Batzordearen onespena jaso ondoren. Euskal Autonomia Erkidegoko Aholkularitza Administrazioako erakundeek ere bazkide babesle izateko eskaria egiteko aukera izango dute.

Edozein pertsona fisikok izango du bazkide zenbakidun izateko aukera, baldin eta karrerako nahiz bitarteko funtzionario gisa, estatutupeko langile edo bitarteko langile gisa, langile kontratatu gisa, aldi baterako langile gisa edo goi-kargudun gisa bazkide babesleren bati zerbitzuak ematen badizkio, eta 2 urteko iraupena badu.

Oro har, zerbitzuak eraginkorki eten edo bertan behera utzi, eta horren ondorioz bazkideak dirusariak jasotzeari uzten dion kasuetan, bazkide babesleek zein bazkide zenbakidunak ekarpenak egiteari utziko diote, eta hortik aurrera bietako azkena bertan behera utzitako bazkide izango da.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Erakundeak emandako prestazioen Erregelamenduan ezarri denaren arabera, bazkide pasibo gisa hartuko da aurretik bazkide zenbakidun aktiboa edo bertan behera utzia izan den, eta erretiroarengatik, ezintasun iraunkorarengatik edo iraupen luzeko langabeziarengatik prestazio eskubidea sortzen duen pertsona. Era berean, onuradun gisa hartuko da bazkide zenbakiduna zentzeagatik bazkidearen kausadun bihurtu, eta Erakundearen aurrean eskubide ekonomikoen hartzekodun den pertsona. Zendutako bazkideak izendatu dituen pertsonak baino ez dute izaera hori izango, eta esanbidezko izendapenik egon ezean, legezko edo testamentuko oinordekoak izango dira.

Bazkide pasibo edo onuradunaren izaera aitortuko zaio Erregelamenduan aurreikusitako prestazioak ordaintzeko kausa jazotzean, eta Erakundeako Gobernu Batzordeak hala onartzean.

Estatutuei jarraiki, ekarpen zehaztuko eta prestazio zehaztugabeko enpleguaren modalitatearen barruan sartzen da Erakundea, eta beraz, ez du estaltzen prestazioei lotutako arriskurik.

Bazkide babesleek Erakundeari egiten dizkioten ekarpenak bazkide zenbakidunei esleituko zaizkie haien diru-sarrera finkoekiko nahiz aldizkako diru-sarrerekiko proportzioan, eta zenbakidunek, era berean, borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Erakundeak bere egindako finantza- eta aktuariotza-sistema banako finantza-kapitalizazioa izanik, kapitalizazio-prozesuaren ondoriozko gertakizuna jazotzen den unean kuantifikatuko diren prestazioak izango dira bazkide bakoitzaren ekarpenak gehi dohaineko ondare-hazkundeak eta horiei lotu lekizkiekeen inbertsioetatik lortu diren errentak.

### 2. Prestazioen estaldura

Hauek dira Erakundeak estalitako gertakizunak:

- i) Bazkide zenbakidunaren erretiroa edo egoera parekagarria. Egoera hori ezin bada lortu, 60 urte betetakoan baino ezingo da prestazioa jaso, baldin eta bazkide zenbakidunak Gizarte Segurantzari edo Estatuaren Klase Pasiboetan alta emateko kausa den jarduera eten badu.
- ii) Ezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa bazkide zenbakidunaren ogibiderako.
- iii) Bazkidearen heriotza, alarguntasun-prestazioa, zurtasun-prestazioa edota bestelako oinordekoen aldeko eskubideak sor ditzakeena.
- iv) Bazkide zenbakiduna iraupen luzeko langabezian egotea.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Erakundearen bazkide pasibo edo onuradunen aldeko eskubide ekonomiko baten aitortpena izango da prestazioen izaera, prestazio horrek estalitako gertakizunen bat jazotzearen ondorioz. Prestazioen eskubide ekonomikoen zenbatekoa, bazkideak kapitalizatutako aurrezkien zenbateko berbera izango da.

Gertakizuna jazotzen den unetik aurrera, bazkide pasibo edo onuradunek era hauetakoren batean jasoko dituzte prestazioak:

- Kapital gisa, eta ordainketa bakarrean, bazkideak data efektibora arte bere gain hartutako eskubideen zenbatekoa.
- Errenta gisa, aldi baterakoa edo zendu artekoa. Errenta gisa jasotzen diren prestazioen kasuan, bazkide pasibo edo onuradunak aukera izango du inolako bermerik gabeko finantza-errentaren modalitatearen artean zein aktuariotza-errentaren modalitatearen artean hautatzeko. Azken kasu honetan, Erakundeak aktuariotza-errenta horiek kobratu egiten direla ziurtatu beharko du, primaren kostua bazkideari egotziz edo aseguru-konpainiaren batekin aktuariotza-errentaren ordainketa aseguratzeke poliza izenpetuz.
- Era mistoan, hau da, errenta-modalitateetako bat kapital gisako ordainketa bakararekin bateratuz.

Erakundearen prestazioen Erregelamenduko 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, bazkide zenbakidunak, aktiboak nahiz bertan behera utzitakoak, eskubide ekonomikoak mobilizatu ahal izateko, aurretik bazkide babeslearekin zuen estatutu- edo lan-harreman oro eten behar izan du.

Eskubideen mobilizazioak erabatekoa izan behar du eta lehentasuna izango dute beste enplegu-plan bateranzkoek, edo horrelakorik ezean, edozein aurreikuspen-planeranzkoek, betiere, baldin eta prestazioak kobratzeko eraren inguruan Erakundearen Estatutueta finkatutako baldintza zein ezaugarriak betetzen badituzte, eta mobilizazioaren helburu den planak bere barne-araubidean erreskate-eskubiderik aitortzen ez badu Erakundearen Estatutueta aurreikusitakoak ez diren kasuetarako. Bazkide babeslearekin estatutu- edo lan-harremana bukatu eta handik bi urtera hasi ahal izango da bazkidea mobilizazio-eskubidea erabiltzen.

Bazkide pasibo edo onuradunen eskubide ekonomikoak mobilizatu ahal izateko, eskubidearen izaerak hala onartu behar du, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora aldatuko den kasuan izan behar du, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintza nahiz epe berberak bete behar dira.

Eskubide ekonomikoen mobilizazioak ez du bazkide onuradunarentzat batere gasturik sortuko, ezta eskubide horien murriztapenik ere.

Hurrengo kasuetan ez da aipatutako bi urteko epea igaro beharrik izango:

- a) Lan harreman finkoa bertan behera geratzea.
- b) Beste Administrazio Publiko batera joatea.
- c) Bazkide babeslearen baja.

## **ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA**

### **3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

#### **a) Irudi leiala**

Urteko kontuak Erakundearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira. Indarreko legeriaren arabera aurkeztu dira, eta, zehatzago, Eusko Jaurjaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzaren sailak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetarako emandako kontabilitate-egokitzapenerako arauekin bat etorrira. Horren helburua Erakundearen ondarea eta finantza-egoeraren irudi leiala ematea da.

2008ko abenduaren 31ra arte, Erakundea ez dago urteko kontu bateratuak formulatzera behartuta, Merkataritzako Kodearen 42. artikulua edukiarekin bat etorrira.

Nahiz eta Bazkideen Batzar Orokorrak oraindik ez dituen 2008ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartu, aldatu gabe onartuko direlakoak dago Erakundearen Gobernu Batza.

Urteko kontuen dokumentuetan jasotako kopuruak mila eurotan adierazita daude.

#### **b) Partida multzoa**

Balantzearen eta galera-irabazien kontua hobeto ulertzearen, horiek batera aurkeztu dira, eta eskatutako analisiak, memorian, dagozkion oharretan, aurkeztu dira.

### **4. Aplikatutako kontabilitate printzipioak eta balorazio arauak**

Urteko kontuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei egokitutako Kontabilitateko Plan Orokorrean jasotako kontabilitate printzipio eta balorazio eta sailkapen arauekin bat etorrira prestatu dira, Eusko Jaurjaritzaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 1988ko abenduaren 12ko Zirkularraren arabera, bai eta erakunde berberak emandako beste zirkular aplikagarri batzuetan jasotako edukiekin bat etorrira.

Erantsitako urteko kontuak ez dituzte jasotzen Eusko Jaurjaritzaren maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak ezarritako kontabilitate-aldaketak, batez ere inbertsioen balorazio-irizpide berriei dagokienez. Aipatutako Dekretuaren Bosgarren Xedapen Iragakorrean jasotzen denez, kontabilitate-irizpide horiek 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera exijitu ahal izango dira (16. oharra).

Hauek dira aplikatutako kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau nagusiak:

#### **a) Zuhurtzia printzipioa**

Ez dira kontabilizatu ekitaldia ixterakoan gauzatu gabeko emaitza positiboak. Ohar honetan zehaztutako balorazio-arauen arabera ezarritako galerak (potenzialak ere bai) jakiten direnean erregistratzen dira.



## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

### b) Sortzpen printzipioa

Sarrerak eta gastuak lehendabizikoak jasotzeko eskubidea eta bigarrenak ordaintzeko betebeharra sortzen denean aitortzen dira kontabilitateari dagokionez, berdin dela horiek kobratzeko edo ordaintzeko data.

### c) Hastapen gastuak

Eratze, hastapen eta kapitalaren anplazio gastuak horien kostuaren arabera kapitalizatzen dira, eta 5 urteko epean amortizatzen dira linealki. Kapitalizazioa ahalbidetu zuten zirkunstantziak aldatzen direnean, amortizazioan pendiente dagoen zatia emaitzetara eramaten da baldintza horiek aldatzen diren ekitaldian.

### d) Ibilgetu ez-materiala

Informatikako Aplikazioak horien erosketa-kostuaren arabera baloratuta azaltzen dira, egindako amortizazioak kenduta. Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatzen da, 3 urteko bizitza baliagarria kontuan hartuta.

Ibilgetu immaterial gisa hartuko dira Erakundearen *extraneta* sortzearekin zuzenean erlazionatzen diren kostu identifikagarriak, eta aurreikuspenen arabera, urtebete baino luzeagoz kostuak baino etekin ekonomiko handiagoak sortuko dituztenak. *Extraneta* garatzeko aitortu diren kostu horiek, sarearen bizitza erabilgarrian zehar, hots, 5 urtean zehar amortizatuko dira.

Programa informatikoen mantentze-lanekin erlazionatutako gastuak eraginkorki burutzen direnean hartuko dira gastu gisa.

Erakundearen egoitza soziala diren lokalak (1. oharra) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak laga ditu doan (5. oharra). Erakundearen aldeko erabilera-eskubide horiek ukitutako ondasunen katastro-balioaren arabera baloratu dira. Ibilgetu ez-material bezala erregistratu dira, eta, aldi berean, jasotako diru-laguntza bezala "Hainbat ekitalditan banatu beharreko Sarrerak" epigrafean. Lagapen-epea mugagabea denez, Erakundeak 50 urteko epea hartu du amortizazio linealerako.

### e) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean jasotako ondasunak erosketa-prezioaren arabera baloratu dira, eta hor sartzan dira Ogasun Publikotik zuzenean berreskuragarriak ez diren zeharkako zergak.

Amortizazioa sistematikoki kalkulatzen da metodo linealaren bitartez, dagozkien aktiboen gainean baloratutako bizitza baliagarriaren arabera, horien funtzionamendu, erabilera eta gozamenagatik jasandako depreziazioa kontuan izanda.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Hauek dira Ibilgetu materiala osatzen duten elementuek izandako deprezazioa kalkulatzeko erabilitako bizitza baliagarriak.

	<u>Bizitza baliagarri a urtetan</u>
Garraio elementuak	5
Altzariak eta instalazioak	10
Informatika eta datuak prozesatzeko ekipamenduak	3

### f) Finantza inbertsioak

Kotizatutako Akzioak eta beste partaidetza batzuk horien erosketa-kostuan baloratuta daude, horri lotutako gastuak barne; horrela, dagokion Zuzkidura eratzen da finantza-inbertsioen deprezazioagatik, merkatuko balioa erosketa-balioa baino txikiagoa denean.

Kotizatu eta kotizatu gabeko errenta finkoko tituluetan egindako inbertsioak horien erosketa-prezioan baloratu dira, edo, bestela, horien ordainketa-balioan, azken hau txikiagoa balitz. Erosketa-balio eta ordainketa-balioaren arteko diferentzia, urtero amortizatzen da balioaren hondar bizitzaren arabera eta horren errentagarritasunaren gaineko barne-tasarekin bat etorrira.

Egoera balantzeko "Finantza inbertsioak - Errenta finkoko tituluak" epigrafean erregistratutako jaulkipen egituratuak akzio eta beste partaidetza batzuetarako deskribatutako irizpidearekin bat etorrira baloratzen dira (eragiketa muga-egunera heltzean inbertitutako kapitala berreskuratu ahal izatea bermatuta ez dagoela). Ondorio horietarako, merkatu balioa beste alderdiak emandako balorazioaren arabera lortzen da.

Errenta finkoko finantza-inbertsioei dagozkien sorrarazitako interesak eta kobratzeko daudenak, jaulkipenak eta depositu egituratuak egoera balantzeko aktiboaren "Urtaldi-amaierako doikuntzak" epigrafean erregistratzen dira.

### g) Finantza aktibo likidoak

Aldi baterako eskuratutako finantza-aktiboak, berriz saltzeko konpromisoak dituztenak, horien erosketa-prezioan baloratzen dira, eta horien ordaintze edo gauzatze balioa baino txikiagoa da.

Sorrarazita eta kobratzeko dauden interesak, finantzarioki kalkulatuta daudenak, egoera balantzeetako aktiboaren Urtaldi-amaierako doikuntzak epigrafean erregistratzen dira.

### h) Sarrera eta gastuak aitortzea

Sarrerak eta gastuak horien sortzapen-aldiaren arabera aitortzen dira kontabilitateari dagokionez, eta ez horien kobrantza edo ordainketaren arabera.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

Etekin espizitua duten errenta finkoko tituluetatik sorrarazitako interesak egunero periodifikatzen dira, eta aktiboaren "Urtaldi-amaierako doikuntzak" epigrafean erregistratzen dira kupoiak kobratzeko egunera arte, Finantza inbertsioen sarreraren kontura abonatuz.

Interesen sortzapen-aldi bakoitzari aplika dakioken interes-tasa likidatu arte jakiten ez denean, sorrarazitako etekinen periodifikazioa egiten du Erakundeak, kalkulatu arte dagokion erreferentzia-indizeak izandako bilakaera oinarri hartuta.

### i) Prestazioetarako zuzkidura teknikoak

Erakundearen aurreikuspen-jardueraren ondorioz hartutako obligazioei aurre egiteko eraturako zuzkidurak dira.

Ekitaldi bakoitzean hurrengo hauek dira zuzkidura horiek hornitzen dituztenak: batetik, bazkide osoen kuota eta bazkide babesleen kontribuzioei baliokidea zaien zenbatekoa, eta, bestetik, aurreko ekitaldiaren emaitzen aplikazioa, emaitzen banaketa onartu eta gero. Zuzkidurak estutuen arabera ezarritako prestazioei aurre egiteko aplikatzen dira. Zuzkidura horien bariazioa, ekitaldian, galera eta irabazien kontuan jasotzen da, "zorra" atalean ekitaldi itxierako zuzkidura teknikoak aurkeztuz, eta "hartzekoa" atalean aurreko ekitaldiko zuzkidurak.

### j) Erakundeko kideen kuotak eta sorrarazitako prestazioak

Erantsitako galera eta irabazien kontuko "Ekitaldiko kuotak – Erakundeko kideen kuotak" epigrafeak Erakundeko bazkide osoek eta bazkide babesleek, ekitaldi bakoitzean, egindako ekarpenak jasotzen ditu.

Bazkide osoen eskubideak "Zuzkidura teknikoak" tituluaaren saldoaren arabera baloratzen dira, horien ekarpen eta prestazioen ondorioetarako.

Ordaindutako zenbatekoak erantsitako galera eta irabazien kontuko "Ekitaldian sorrarazitako prestazioak" kapituluan erregistratzen dira.

### k) Sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenak

Sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipenak, hain zuzen Erakundeak lortutako kapital higigarriaren etekinei dagozkienak, erantsitako egoera balantzearen aktiboaren "Kredituak – Zerga eta gizarte kredituak eta beste batzuk" epigrafean aurkezten dira, Erakundeak horiek itzultzeko eskubidea duelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearen araubide fiskalari buruzko Foru Arauekin bat etorrita.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

### l) Operazioak finantza-gerokoekin

Erakundeak inbertsio gisa kontratatuko ditu merkatu antolatuetan kotizatzen duten finantza-gerokoak.

Finantza-gerokoekin kontratazio-prezioen nahiz ondorengo finantza-baloreen artean gertatzen diren diferentzia positibo edo negatiboak irabazi eta galeren kontuan jasoko dira; galerak "Finantza-gerokoekin operazioetako galerak" atalean eta etekinak "Finantza-gerokoekin operazioetako irabaziak" atalean.

### m) Atzerriko moneta

Saldo aktibo eta pasiboak, atzerriko monetan, dibisa merkatuaren batez besteko kanbio ofizialean azaltzen dira balantzean, horren datan, edo, horrela ezean, data horren aurreko azken merkatuko egutegiko egunean. Finantza inbertsioak dibisetan baloratzen sortutako diferentziak karteraren plusbalio edo minusbalio latentetzat hartzen dira, eta bigarrenen kasuan, egoera balantzearen "Zuzkidurak" epigrafean erregistratzen dira. Diruzaintzatik datozen diferentziak, direla positiboak edo negatiboak, ekitaldiaren emaitzari abonatzen edo kargatzen zaizkio, hurrenez hurren.

### n) Jasotako diru-laguntzak

Erakundeak martxan jartzeko eragiketak finantzatzera bideratutako diru-laguntzak (jasotakoak) (12. oharra) horien emakida ofiziala lortzen denean kontabilizatzen dira, eta "Hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak" epigrafean erregistratzen dira. Ekitaldiaren emaitzari egozten zaizkio 3 urteko epe batean, ondareari dagokionez ustiapen gastuen garrantzi erlatiboaren proportzioan, biak baloratuz hiru urte horietako bakoitzerako. 2007ko abenduaren 31n, diru-laguntza osoa emaitzen kontuetan jasota zegoen.

Erakundearen jardura gauzatzen den lokalen erabilera-lagapenari dagokionez (5. oharra), diru-laguntza gisa erregistratutako zenbatekoa sarrerei egozten zaie, aktibatutako erabilera eskubideen amortizazioa gauzatzen den proportzio berean.

### o) Ingurumena

Erakundearen iritziz, ingurumena babesteari buruzko legeak betetzen ditu. Bestalde, ez da beharrezkotzat jo helburu horretarako zuzkidurarik erregistratzea, ez dagoelako kontu horiei eragin diezalekeen arrisku edo gertakizun garrantzitsurik, Erakundearen jardueragatik.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

### 5. Ibilgetu ez-materialak

Hauxe izan da Ibilgetu ez-materialen mugimendua 2008. urtean:

	Mila eurotan		
	Kostua	Amortizazioa	Kontabilitate balio garbia
<b>Erabiltzeko eskubideak:</b>			
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	476	(29)	447
Adizioak	-	(9)	(9)
Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	476	(38)	438
<b>Aplikazio informatikoak:</b>			
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	196	(195)	1
Adizioak	-	(1)	(1)
Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	196	(196)	-
<b>Uneko ibilgetua:</b>			
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	-	-	-
Adizioak	167	-	167
Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	167	-	167
Saldoa, 2007ko abenduaren 31n	672	(224)	448
Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	839	(234)	605

"Erabiltzeko eskubideak" epigrafea Erakundearen gizarte egoitza diren lokalei dagokie. Lokal horiek doan laga ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalak, 2005eko urtarrilaren 11n egindako akordioaren bitartez; akordio hori Gobernu Kontseiluak hartu zuen, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuordetzak proposatuta. Erakundeak ondasun horiek Administrazioaren eskura jarri beharko ditu, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak hala eskatzen badiu, interes publikoagatik edo Erakundeak bere gain hartutako betebeharrak bete ez dituelako, ondasunon helburu eta horiek mantendu eta kontserbatu beharrari dagokionez.

Uneko ibilgetuan jaso dira zuzenean *extranet* sortzearekin erlazionatutako kostuak. Erakundearen aurreikuspenen arabera, 2009 ekitaldian jarriko da martxan eta une horretan hasiko da bere amortizazioa, bere bizitza erabilgarrian zehar, hau da, bost urtean zehar luzatuko dena.

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

### 6. Ibilgetu materialak

Hauak izan dira 2008. urtean Ibilgetu materialetan sartutako kontuetan egon diren mugimenduak:

	Mila eurotan		
	Saldoa 07.12.31	Adizioak	Saldoa 08.12.31
<b><u>Kostua</u></b>			
Garraio elementuak	15	-	15
Altzariak eta instalazioak	110	-	110
Ekipamendu informatikoak	66	-	66
	<u>191</u>	<u>-</u>	<u>191</u>
<b><u>Amortizazioa</u></b>			
Garraio elementuak	(9)	(3)	(12)
Altzariak eta instalazioak	(26)	(10)	(36)
Ekipamendu informatikoak	(65)	(1)	(66)
	<u>(100)</u>	<u>(14)</u>	<u>(114)</u>
<b><u>Kontabilitate balio garbia</u></b>	<b><u>91</u></b>		<b><u>77</u></b>

### 7. Finantza inbertsioak

Hauex izan da finantza inbertsioen mugimendua 2008. urtean:

	Mila eurotan				
	Saldoa 07.12.31	Adizioak	Erretiro eta amortizazioak	Intsuldaketak	Saldoa 08.12.31
Akzioak eta beste partaidetza batzuk	29.395	17.023	(7.465)	-	38.953
Egin beharreko partaidetza-ordainketak	(4.135)	-	1.630	-	(2.505)
Errenta finkoko tituluak:					
- Jaulkipen egituratuak	51.733	8.609	(4.301)	(2.000)	54.041
- Errenta finkoko beste titulu batzuk	38.100	64.162	(9.270)	2.000	94.992
Zuzkidurak (deduzitzeko)	(2.461)	(14.672)	388	-	(16.745)
	<u>112.632</u>	<u>75.122</u>	<u>(19.018)</u>	<u>-</u>	<u>168.736</u>

## ITZARRI, BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEA

2008ko abenduaren 31ra arte, 1.364 mila euro daude pendiente ordainketetan, partaidetzen gainean, Arcano Capital I F.C.R.-en, konprometitutako inbertsioko 2.500 mila euroren gain; 591 mila euro pendiente daude ordainketetan, partaidetzen gainean, Oquendo SCA SICAR e-n, konprometitutako inbertsioko 1.500 mila euroren gain; eta 550 mila euro, pendiente dauden ordainketetan, partaidetzen gainean, "Electra QMC Development Capital Fund Plc" Funtsean, konprometitutako inbertsioko 2.000 mila euroren gain;

2008ko abendura arte konprometitutako inbertsio guztiak "Akzioak eta beste partaidetza batzuk" epigrafean azaltzen dira.

2008ko abenduaren 31ra arte, "Finantza inbertsioak" epigrafeak dibisetan eskuratutako tituluak jasotzen ditu, hurrengo kontrabalio honekin, eurotan:

	<u>Mila eurotan</u>
Dolar amerikarrak	2.096
Yen japoniarrak	747
Libera esterlina	365
Koroa suediarrek	363
Franko suitzarrak	204
Danimarkako koroak	118
	<u>3.893</u>

Errenta finkoko karteraren gainean aurreikusitako muga-eguna, 2008ko abenduaren 31ra arte, hauxe da:

	<u>Mila eurotan (kontabilitate- balioa)</u>
2009	25.709
2010	6.521
2011	3.369
2012	7.883
2013 eta hurrengoak	96.082
Betiko jaulkipenak	9.469
	<u>149.033</u>

"Errenta finkoko tituluak – Jaulkipen egituratuak" kapituluan, 79.233 mila euroko eskuratze-kostua duten jaulkipen jakin batzuk daude. Horien jaulkitzaileak ezeztatze-ko aukera du kontratuko muga-eguna heldu baino lehen, edo, bestela, azken muga-eguna aurreratu egin daiteke, kontratukoari dagokionez, jaulkipenen errentagarritasunaren bilakaeraren arabera.

